## AIAKO UDALA

*Iragarkia*

Arauzko informazio publikorako epea inolako erreklamazio eta oharpenik egin gabe igaro ondoren, finko eta behin betikotzat jotzen da Udalbatzarrak 2010eko uztailaren 28an eginiko osoko bilkuran onartutako ondorengo Ordenantza. Indarrean sartuko da Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean. Testua ondorengo hauxe da:

Aia, 2010eko irailaren 8a.—Igor Iturain Ibarguren, Alkatea.

(1) (10290)

*Animaliak edukitzea eta babestea arautuko duen Udal Ordenantza.*

### SARRERA

Udal Erregimenaren Oinarrien Legeak eta Euskal Autonomia Erkidegoaren urriaren 29ko 6/1993 Legeak, Animalien babesari buruzkoak, eta gainerako xedapenak Udalari aitortutako aginpideak erabiliz ematen da honako Ordenantza hau.

### AZALPENA

Ordenantza honek arautu nahi du era guztietako animalien edukitzea, konpainiakoak nahiz bestelakoak, animalien eta pertsonen arteko elkarbizitza antolatuz, hartara gerta daitezkeen osasunerako arriskuak, lasaitasuna, osasuna eta pertsona zein ondasunen segurtasuna zaintzeko.

Era berean, honako arlo hauetan animaliekin izan beharreko gutxienezko arreta arautzen du: Tratua, garbitasuna eta elikadura, animalien babesa, erakusketa eta garraioa, eta animalien eta pertsonen arteko elkarbizitza.

Azkenik, arau-urratze eta ezarri beharreko zigorrak zehazten ditu, eta zigortzeko prozedura exekutiboa ezartzen du.

### I. TITULUA

### HELBURUAK, DEFINIZIOAK ETA EZARPEN EREMUA

#### I ATALA. HELBURUAK ETA EZARPEN EREMUA

*1. artikulua.*

Ordenantza honen ezarpen eremua Aiako kasko eta auzoetako hiriguneak edo inguru hurbilak, beti ere ondorioak sortzen badira biztanlegoarengan.

*2. artikulua.*

Ordenantza honen helburua da hainbat arau ezartzea, udalerrian dauden konpainiako animaliak, etxeko animaliak eta basabasa-animaliak babesteko, eta horrela animalien eta pertsonen arteko elkarbizitza antolatzeko. Honako hauek Ordenantza honen ezarpen eremutik kanpo daude, bestelako araudi berezia dutelako:

a) Ehiza.

b) Arrantza.

c) Uso-tiroko lehiaketak.

d) Hainbat herri-kirol, etxeko animaliekin egiten direnak.

e) Nekazaritza ustiaketak.

## AYUNTAMIENTO DE AIA

*Anuncio*

Transcurrido el plazo de información pública reglamentario sin que se haya presentado reclamación ni observación alguna, se ha elevado a firme y definitivo el acuerdo inicial adoptado por el Pleno municipal en sesión celebrada el día 28 de julio de 2010 sobre la aprobación de la siguiente Ordenanza con efectos de entrada en vigor desde el día siguiente a su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa cuyo texto es del siguiente tenor:

Aia, a 8 de setiembre 2010.—El Alcalde, Igor Iturain Ibarguren.

(1) (10290)

*Ordenanza Reguladora de la tenencia y protección de animales.*

### INTRODUCCION

La presente Ordenanza se dicta en virtud de las competencias atribuidas al Ayuntamiento por la Ley Reguladora de las Bases del Régimen Local y la Ley de la Comunidad Autónoma del País Vasco 6/1993, de 29 de octubre, de Protección de los Animales, y demás disposiciones aplicables.

### EXPOSICION DE MOTIVOS

La presente Ordenanza pretende regular la tenencia de toda clase de animales, tanto sean de compañía o no, armonizando la convivencia de los mismos y las personas con los posibles riesgos para la sanidad ambiental, y la tranquilidad, salud y seguridad de personas y bienes.

Regula, asimismo, las atenciones mínimas que han de recibir los animales desde el punto de vista del trato, higiene y alimentación, protección, exhibición, transporte e identificación, y la convivencia de los animales con las personas.

Finalmente tipifica las infracciones y las sanciones aplicables y establece el procedimiento ejecutivo sancionador.

### TITULO I

### OBJETIVOS, DEFINICIONES Y AMBITO

#### CAPITULO I. OBJETIVOS Y AMBITO DE APLICACIÓN

*Artículo 1.º*

El ámbito geográfico de la presente Ordenanza se refiere a todos los espacios urbanos del término municipal de Aia

*Artículo 2.*

La presente Ordenanza tiene por objeto, establecer las normas para la protección de los animales domésticos, domesticados y salvajes que se encuentren en el término municipal, armonizando la convivencia de los mismos y las personas. Quedan fuera del ámbito de esta Ordenanza y se regirán por su normativa propia:

a) La caza.

b) La pesca.

c) La celebración de competiciones de tiro al pichón.

d) La celebración de modalidades de deporte rural vasco que conlleven la utilización, como elemento básico de animales domésticos.

e) Las explotaciones agrarias.

II. ATALA. DEFINIZIOAK

*3. artikulua. Definizioak.*

— Konpainiako animalia: Gizakiak mantentzen duen animalia, batez ere etxean, etxeko animalia zein basa-animalia izan, eta animalia jostatzeko, hezitzeko edo apaintzeko bada, eta irabazi-asmoko jarduerarik ez badago.

— Etxabereak: Gehienbat giza-ingurunean jaiotakoak eta gizakien beharra dutenak bizirik irauteko.

— Etxekotutako animaliak: Jaiotzez libre eta basatiak izanik, pertsonen inguruan eta pertsonekin bizitzera ohituak izan direnak eta bizirik irauteko azken batean, gizakien beharra dutenak.

— Ustiaketarako animalia: Irabazi-asmoarekin gizakiak mantentzen dituen animaliak, irabaziak animalien ustiaketatik edo haiengandik lortutako produkzioen ustiaketatik lortzen badira.

— Basa-animalia gatibutza egoeran: Berez basa-animaliak izanda gatibutzan jaio diren animaliak edo naturan libre jaio arren, gatibutzan dauden animaliak, baina gatibutzaren helburua ez bada animalia etxekotzea edo hezitzea.

— Abandonatutako animalia: Abandonatutako animaliatzat joko dira jabe edo helbide ezagunik ez dutenak, animaliaren datuak jakiteko sistemarik ez dutenak eta erroldan ez daudenak.

Era berean, abandonatutako animaliatzat joko dira honako egoeretan dauden animaliak: Batetik, erroldan egon arren, animaliaren jabeak ez badu desagertzearen salaketa aurkeztu araudiak ezarritako epearen barruan, eta bestetik, bide publikoan jaberik gabe dabiltzanak.

II. TITULUA

ARAU OROKORRAK

III. ATALA. IZAERA OROKORREKO ARAUAK

*4. artikulua.*

Hasiera batean baimendu egiten da etxe partikularretan konpainiako etxeko animaliak edukitzea, baldin eta etxeak, bertako instalazioek eta animalia kopuruak zein animalien tamainek horretarako aukera ematen badute osasunaren eta garbitasunaren aldetik, eta ez baldin bada sortzen auzokideentzako, animalientzako edo beste edonorentzako arrisku egoerarik edo eragozpenik.

Debekatuta dago balkoietan, garajeetan, pabilioietan, sotoetan, azoteetan, lorategietan edo bestelako lokaletan animaliak edukitzea, baldin eta animaliek auzokide zein oinezkoentzat usaina zein zikinkeria sortu edo ulua zein zaunka gogaikarriak egiten badituzte.

*5. artikulua.*

Debekatuta dago hirigunean animaliak hazteko ustiategiak edukitzea, eta ezin izango dira ikuiluratu etxe partikular, terraza, azotea, ganbara, soto, trasteleku, bodega edo patioetan.

*6. artikulua.*

Parke edo horrelako helburua duten bestelako lekuetatik kanpo basa-animaliak izateko, indarrean dagoen legedia bete beharko da kasu bakoitzean, eta jabea arduratuko da auzokideentzako arrisku edo eragozpenik ez sortzeaz, eta horregatik debekatuta egongo da animalia hauek solte lagatzea gune irekietan edo jendea dabilen lokaletan.

CAPITULO II.DEFINICIONES

*Artículo 3.º Definiciones.*

— Animal de compañía: Todo aquel mantenido por el hombre, principalmente en su hogar, que se posee con un objetivo lúdico, educativo u ornamental, ya sean domésticos o silvestres, sin que exista actividad lucrativa alguna.

— Animal doméstico: Aquellos que, habiendo nacido en entornos mayoritariamente humanos, dependen de éstos para su subsistencia.

— Animales domesticados: Aquellos que, habiendo nacido silvestres y libres, son acostumbrados a la vista y compañía de las personas, dependiendo definitivamente de éstas para su subsistencia.

— Animal de explotación: Todos aquellos que adaptados al entorno humano sean mantenidos por el hombre con fines lucrativos, bien de ellos mismos o de las producciones que generan.

— Animal salvaje en cautividad: Aquellos que habiendo nacido silvestres o siendo de naturaleza silvestres hayan nacido en cautividad, son sometidos a condiciones de cautiverio, pero no de aprendizaje para su domesticación.

— Animal abandonado: Se considera animal abandonado aquel que no tenga dueño, ni domicilio conocido, ni posea sistema de identificación que permita conocer estos datos, y aquel que no se encuentre censado.

También se considera animal abandonado aquel que aunque esté censado no haya sido denunciada su desaparición en los plazos que la presente normativa establece, o que circule por la vía pública sin estar acompañado por sus propietarios.

TITULO II

NORMAS GENERALES

CAPITULO III. NORMAS DE CARACTER GENERAL

*Artículo 4.º*

Se autoriza con carácter general la tenencia de animales domésticos de compañía en los domicilios particulares, siempre que las circunstancias del alojamiento, la adecuación de las instalaciones y el número y volumen de los animales lo permitan, tanto desde el punto de vista higiénico-sanitario como por la no existencia de ninguna situación de peligro o de molestia para los vecinos o para otras personas en general, o para el animal.

Queda prohibida la tenencia habitual o estabulación de animales en balcones, garajes, pabellones, sótanos, azoteas, jardines o cualquier otro local, cuanto éstos ocasionan molestias objetivas por sus olores, ruidos, suciedad, aullidos o ladridos a los vecinos o transeúntes.

*Artículo 5.º*

Queda prohibida dentro de la zona urbana de la ciudad la posesión de animales de explotación para su cría, impidiéndose su estabulación en domicilios particulares, terrazas, azoteas, desvanes, garajes, sótanos, trasteros, bodegas o patios.

*Artículo 6.º*

La tenencia de animales salvajes fuera de los parques y zoológicos o áreas destinadas al efecto estará sometida a la legislación aplicable en cada momento a este caso, responsabilizándose el propietario de la total ausencia de peligros y molestias al vecindario. A tal efecto, se prohíbe dejar sueltos a estos animales en espacios exteriores o locales abiertos al público.

*7. artikulua.*

Animalien jabeak zein edukitzaileak behartuta daude janari egokia eta zainketa egokia ematera animalien ongizatearen alde, gaixotasunen tratamendua dela zein osabidea dela, bai eta agintariek ezarritako administrazio neurriak zein osasunaren prebentzioari buruzkoak betetzera ere. Horiez gain, animalia espezie bakoitzak dauzkan ezaugarrien araberako alojamendua eman beharko diete jabeek animaliei.

*8. artikulua.*

Animaliak ondo babestuta egon daitezen, erabat debekatuta daude honako hauek:

1. Animaliak bortizkeriaz edo substantzia toxikoak emanez akabatzea, bide zein gune publikoetan substantzia toxikoak gordetzea eta norbere zein inoren animaliak zauritzea, ankerkeriaz tratatzea edo tratu txarrak ematea, konpainiako animalia izan zein etxekotua izan zein basa-animalia izan, eta etxean eduki zein gatibutzan eduki.

2. Animalien arteko borroka saioak, publikoak zein pribatuak, baldin eta bertan animaliak akabatu, zauritu edo erasotzen badira.

3. Mozketak egitea animaliei. Bakarrik onartuko dira albaitariak egindako mozketa terapeutikoak, arrazoi funtzionalengatik egindakoak eta arrazaren ezaugarriei eusteko egindakoak.

4. Animaliak abandonatzea.

5. Alkohola, drogak eta botikak ematea edo kalte fisikoak zein psikikoak eragin ahal dizkien edozein mutilazio artifizial egitea, bereziki lehiaketetan errendimendua handitzeko bada.

6. Babestutako espezietako animaliak saltzea, edukitzea eta erakustea, arlo honetako legedia kontuan izan gabe.

III. TITULUA

ETXEKO TXAKURRAK ETA KATUAK

IV. ATALA. ERROLDA ETA IDENTIFIKAZIOA

*9. artikulua.*

Txakur-jabeek derrigorrez identifikatu eta erroldatu behar dituzte haien txakurrak, txakurra jaio edo erosten denetik hilabeteko epean. Berdin egingo da bestelako edozein konpainiako animalia bada ere.

*10. artikulua.*

Animaliak identifikatzeko inplante elektronikoak erabiliko dira, hala agintzen baitu Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailaren 1993ko maiatzaren 25eko 109/93 Aginduak, animalien identifikazioari buruzkoak.

*11. artikulua.*

Udalak txakurren errolda izango du eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Nezkazaritza Zerbitzuan dagoen Animaliak Identifikatzeko Gipuzkoako Lurralde Erregistroarekin konektatuta egongo da.

Halaber, Udala arduratuko da datu-basea urtero eguneratzeaz eta bertako datuen konfidentzialtasuna zaintzeaz.

*Artículo 7.º*

Los propietarios o tenedores de animales estarán obligados a proporcionarles la alimentación y cuidados adecuados para su óptimo bienestar, tanto en el tratamiento de sus enfermedades como de curas, así como a aplicar las medidas administrativas y sanitarias preventivas que las Autoridades dispongan. De igual forma, les proporcionaran un alojamiento acorde con las exigencias propias de su especie.

*Artículo 8.º*

Para una eficaz protección de los animales, queda expresamente prohibido:

1. Causar la muerte mediante actos de agresión o suministro de sustancias tóxicas; el depósito de sustancias tóxicas en vías y espacios públicos; causar daños o cometer actos de crueldad, malos tratos a los animales propios o ajenos, domésticos, domesticados o salvajes, en régimen de convivencia o cautividad.

2. Todos los actos públicos o privados de peleas de animales, o parodias en las cuales se mate, hiera u hostilice a los animales.

3. Practicar mutilaciones, excepto las controladas por veterinario, en caso de necesidad terapéutica, por exigencia funcional o para mantener las características de la raza.

4. Queda expresamente prohibido el abandono de animales.

5. Suministrarles alcohol, drogas o fármacos, o practicarles cualquier manipulación artificial que pueda producirles daños físicos o psíquicos y, en particular, cuando sea para alterar su rendimiento en una competición.

6. La venta de animales pertenecientes a especies protegidas, así como su posesión y exhibición en los términos de su legislación específica.

TITULO III

DE LOS PERROS Y GATOS DE COMPAÑÍA

CAPITULO IV. CENSO E IDENTIFICACION

*Artículo 9.º*

Los propietarios o poseedores de perros están obligados a identificarlos y censarlos a partir del mes de nacimiento o adquisición. Estas obligaciones podrán hacerse extensivas a otros animales de compañía.

*Artículo 10.º*

La identificación se hará mediante un implante electrónico, según lo dispuesto por la Orden 109/93, de 25 de mayo de 1993 de la Consejería de Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco, sobre la identificación de animales.

*Artículo 11.º*

El Ayuntamiento dispondrá de un censo canino conectado con el correspondiente Registro Territorial de Gipuzkoa de Identificación Animal, en el Servicio de Ganadería de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Asimismo el Ayuntamiento se encargará del mantenimiento de la base de datos con periodicidad anual y se responsabilizará de la confidencialidad de los datos.

*12. artikulua.*

Animalia-jabeek edo edukitzaileek albaitariari jakinarazi beharko diote heriotzagatik izandako bajak, eta albaitariak horren berri emango dio Udalari edo dagokion Lurralde Erregistroari, heriotza gertatzen den egunetik kontatzen hasita, hamar eguneko epean.

*13. artikulua.*

Animalia lapurtu edo desagertuz gero, salaketa jarri beharko da 24 orduko epean, eta hori egin ondoren, 10 eguneko epea egongo da lapurketa edo desagerketaren berri emateko albaitariari edo zuzenean Udalari.

*14. artikulua.*

Txakur-jabeak edo edukitzaileak etxez aldatzen badira edo txakurraren jabetza eskualdatzen badute, 10 eguneko epea izango dute horren berri emateko albaitariari, Udalari edo dagokion Lurralde Erregistroari.

*15. artikulua.*

Animaliaren jabeak ordainduko ditu identifikazio zerbitzua, osasun-txartela eta errolda izena ematea.

*16. artikulua.*

Animaliak jasotzeaz arduratzen diren udal zerbitzuek erretenitu egingo dituzte, ordenantza honen arabera, abandonatutako animaliatzat jotzen direnak.

## V. ATALA. ANIMALIEN OSASUN KONTROLA

*17. artikulua.*

Animaliaren batek pertsonentzat kutsakorra den gaixotasunik badu, eta gaixotasuna albaitari kolegiatu batek diagnostikatu badu, eta haren iritziz animalia akabatu egin behar bada, baimendutako eutanasia-sistemaren bat erabilita akabatuko da, eta gastuak jabeak ordaindu beharko ditu. Horiez gain, gaixotasun kroniko sendaezinak dituztenak eta jabeek behar bezala zaintzen ez dituztenak ere akabatu egin beharko dira.

*18. artikulua.*

Foru Aldundiak eta/edo Eusko Jaurlaritzak agintzen badu, jabeek derrigorrez eduki beharko dute txakurraren osasun-txartela.

*19. artikulua.*

Gizakientzako zein gainontzeko animalientzako kutsakorra den gaixotasuna diagnostikatzen badiote animalia bati edo horrelako gaixotasun sintomarik badauka, edo pertsonaren bati haginka egin badio, Udalak animalia hori giltzapean ipintzeko edo isolatzeko aginduko du.

*20. artikulua.*

Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailak egoki ikusten dituen neurriak hartuko ditu, gaixotasun-agerraldiak badaude edo neurri horiek hartzea eskatzen duten bestelako egoerarik sortzen bada, pertsonentzako eta gainontzeko animalientzako kaltegarriak izan ez daitezen.

*21. artikulua.*

Norbaiti haginka egin dioten txakur eta katuei Foru Aldundiko Abeltzantza Zerbitzuak, agindutako kontrolak egin beharko zaizkie, zerbitzu hori da eta, arlo horren ardura duena.

*Artículo 12.º*

Las bajas por muertes de los animales, serán comunicadas por sus propietarios o poseedores a su veterinario, quien lo notificará al Ayuntamiento o al Registro Territorial correspondiente, en el término de 10 días a contar desde el día en que se produjese.

*Artículo 13.º*

En el supuesto de robo o desaparición se deberá denunciar en las 24 horas siguientes y posteriormente se comunicará al veterinario o directamente al Ayuntamiento en un plazo máximo de 10 días.

*Artículo 14.º*

Los propietarios o poseedores de perros que cambien de domicilio o que transfieran su posesión del animal, deberán comunicar estas circunstancias en el plazo de 10 días al veterinario, al Ayuntamiento o al Registro Territorial correspondiente.

*Artículo 15.º*

El importe de los servicios de identificación, confección de la cartilla sanitaria e inscripción en el censo será por cuenta del propietario.

*Artículo 16.º*

Los animales definidos en esta Ordenanza como abandonados serán retenidos por el servicio municipal correspondiente.

## CAPITULO V. CONTROL SANITARIO DE LOS ANIMALES

*Artículo 17.º*

Todos los animales afectados de enfermedad susceptible de contagio para las personas, diagnosticada por un veterinario colegiado, y que a su juicio, tengan que ser sacrificados, lo serán por un sistema eutanásico autorizado, con cargo al propietario; también deberán sacrificarse los que padezcan afecciones crónicas incurables y no estuvieran debidamente cuidados y atendidos por sus propietarios.

*Artículo 18.º*

Se mantiene la obligación de poseer por parte de los propietarios la cartilla sanitaria canina cuando así se establezca por parte de la Diputación y/o Gobierno Vasco.

*Artículo 19.º*

El Ayuntamiento ordenará el internamiento y/o aislamiento de los animales en caso de que se les hubiera diagnosticado o presenten síntomas de enfermedades transmisibles, tanto para el hombre como para otros animales, o que hubieran atacado al hombre.

*Artículo 20.º*

El Departamento de Agricultura y Pesca y Sanidad del Gobierno Vasco en circunstancias particulares que lo exijan o por brotes de enfermedad, tomará las medidas que estime oportunas para que no resulte un riesgo para la salud humana o de otros animales.

*Artículo 21.º*

Los perros o gatos de los que se tenga constancia que hayan producido lesiones por mordeduras, serán sometidos a los controles que el Servicio de Ganadería de la Diputación, responsable en esta materia, estime oportunos.

VI. ATALA. LEKU PUBLIKOETAN EGOTEA

*22. artikulua.*

Kaleetan eta pertsonak dabiltzan beste leku batzuetan, animaliek behar bezala joan beharko dute. Txakurrak lepokoarekin eta uhalarekin lotuta ibili beharko dira bide publikoetan, eta pertsonak dabiltzan gainontzeko leku guztietan, eta egoerak hala behartzen duenean, aske ibili ahalko dira jabearen ondo-ondotik badoaz. Udal agintariek bozala ipintzeko agindu ahal izango dute egoerak hala eskatuta, eta baldin eta txakurrak lehendik ere inoiz haginka egin badu, edo argi erakutsi bada txakur arriskutsua dela.

*23. artikulua.*

Debekatuta dago animaliak honako leku honetan sartzea:

Ikuskizun publiko, ikuskizun kulturaletako, kirol ikuskizunetako eta josteta ikuskizunetako lokaletara, igerileku publikoetara eta osasun zentroetara. Bakarrik sartu ahal izango dira leku horietan animalien lehiaketak edo ikuskizunak antolatzen direnean.

*24. artikulua.*

Ostalaritza arloko establezimendu publikoen jabeek, hau da taberna, pentsio, jantoki, hotel, kafetegi edo antzekoen jabeek debekatu ahal izango dute, nahi izanez gero, bertan txakurrak sartzea. Txakurrak sartuz gero, ordea, derrigorrez eskatu beharko dute txakurrek identifikazioa izatea, uhalarekin lotuta egotea eta bozala ipinita izatea, txakurraren ezaugarriek eta izaerak halakorik eskatzen badute. Bestalde, txakurrek ezin izango dute gaixotasun sintomarik eduki edo zikinak egon. Ezin izango da txakurrik sartu janaria egin eta manipulatzen den lekuetan.

*25. artikulua.*

Toki komunitario pribatuetan, hau da, kultur elkarte, josteta elkarte, auzokideen komunitateen erabilerarako zona eta abarretan animaliak sartu eta egon ahalko dira, baldin eta entitate horiek dituzten arauek onartzen badituzte eta arauak betetzen badituzte.

*26. artikulua.*

Igogailua hartzeko orduan, bertan sartu behar dutenek, ez badute animaliarekin batera sartu nahi, ez dira igogailuan batera sartuko.

*27. artikulua.*

Debekatuta dago garraio publikoetan animaliak garraiatzea. Garraiatu ahal izango dira, ordea, animalien garraiorako leku berezituak dituztenetan. Edozelan ere, animalia geldirik joan behar izango da poltsa, otzara edo bestelako lekuren batean. Animalia taxiz eramaten bada, taxiaren titularrak esandakoa bete behar izango da.

*28. artikulua.*

Gida-txakurrentzat ez dago debekatuta aurreko artikuluetan aipatutako lekuetan sartzea, baldin eta gida-txakur lanetan ari badira eta osasun baldintza egokiak betetzen badituzte, gaixotasun edo agresibitate zantzurik ez bazaie nabari, garbi badaude eta pertsonen osasunari kalterik egiteko arriskurik ez badago. Debekatuta daukate, ordea, janaria egin, gorde eta saltzen diren lekuetan saltzea.

Pertsona minusbaliatuekin dabiltzan gida-txakurrak garraio publikoetan sartu ahal izango dira.

CAPITULO VI. PERMANENCIA DE ANIMALES EN LUGARES PUBLICOS

*Artículo 22.º*

En las vías públicas u otros lugares de tránsito de personas, los animales irán en las debidas condiciones; los perros irán conducidos mediante correas y collar, y circunstancialmente sueltos caminando junto a sus amos. El uso de bozal será ordenado por la Autoridad municipal cuando las circunstancia así lo aconsejen y siempre que tengan antecedentes de mordedores o que su peligrosidad haya sido demostrada.

*Artículo 23.º*

No se permitirá la entrada de animales en los siguientes lugares:

Locales de espectáculos públicos, deportivos, culturales o recreativos, así como en los centros sanitarios, salvo en los certámenes, concursos de animales y espectáculos en los que éstos sean parte fundamental.

*Artículo 24.º*

Los dueños de establecimientos públicos de hostelería, tales como bares, pensiones, restaurantes, hoteles, cafeterías y similares podrán prohibir, a su criterio, la entrada y permanencia de animales. En cualquier caso, han de exigir que los animales lleven la correspondiente identificación y vayan sujetos con correa, provistos de bozal si sus características y naturaleza así lo aconsejan, y siempre que no presenten síntomas de enfermedad o falta de aseo. En ningún caso tendrán acceso a las zonas destinadas a la elaboración y manipulación de alimentos.

*Artículo 25.º*

El acceso y permanencia de los animales en lugares comunitarios privados, tales como sociedades culturales, recreativas, zonas de uso común de comunidades de vecinos, etc. Estará sujeto a las normas que rijan dichas entidades.

*Artículo 26.º*

El uso de ascensores por personas que vayan acompañadas de animales, en las circunstancia en que se concurra con otras personas, se hará de manera que no coincidan en la utilización del aparato, cuando éstos últimos lo deseen.

*Artículo 27.º*

Queda prohibido el traslado de los animales en cualquier medio de transporte público, excepto en los que posean recintos con separación física de los destinados a las personas, y para este fin. Podrá efectuarse el transporte siempre que el animal esté inmovilizado dentro de bolsas, cestas o recintos destinados a este fin. En los casos en los que el medio de transporte sea el taxi, se estará a lo que disponga el titular del vehículo con las condiciones que éste marque.

*Artículo 28.º*

Los perros lazarillos, cuando actúen como tales y reúnan las condiciones sanitarias adecuadas exentos de las prohibiciones anteriores, excepto la del acceso a lugares donde se elaboren, almacenen o vendan alimentos, siempre y cuando dichos perros no presenten signos de enfermedad, agresividad, falta de aseo o puedan generar riesgo para la salud de las personas.

Las personas discapacitadas que vayan asistidas por perros lazarillos tendrán acceso libre a los medios de transporte público.

*29. artikulua.*

Debekatuta dago txakur gorotza bide eta plaza publikoetan, haurren parkeetan, lorategietan eta, oro har, leku apaingarrietan edo jendea ibiltzen den lekuetan uztea. Horregatik, txakurrekin doazen pertsonek gorotzak egitera Udalak horretarako egokitutako lekuetara eramango dituzte.

Txakurrak gorotza espaloian edo oinezkoen igarobideetan lagatzen badu, txakur-jabeak edo txakurra daramanak dauka gorotza jasotzeko ardura. Horretarako poltsa irazgaitzetan sartu, poltsa itxi eta zakarrontzietara edo Udal zerbitzuek adierazitako bestelako tokietara botako du, etxeko zabor-poltsan ere bota ahal du zabor-biltzaileek eraman dezaten eta estolderiasareko hustubideetan ere bota dezake.

Txakur batek bide publikoa zikintzen badu, herritarrek eskubidea izango dute txakur-jabeari edo eramaileari eskatzeko zikindutakoa garbi dezala.

*30. artikulua.*

Udalak ahaleginak egingo ditu, aurrekontuak kontuan hartuta eta egoki iruditzen zaion unean, txakurrak ibiltzeko eta jostatzeko lekuak prestatzeko lorategi eta parke publikoetan, eta konpainiako animalien gorotzak jasotzeko ekipamendu egokia ipiniko du bide publikoetan, horien kokapena ere ondo seinalizatuz.

*31. artikulua.*

Animalia bide publikoetan egon edo ibiltzen bada, eta norbaiti eta ondasun publiko zein pribatuei kalterik egiten badie, jabea izango da kalteen erantzulea.

VII. ATALA. ANIMALIAK JASOTZEKO ZERBITZUA

*32. artikulua. Hildako animaliak.*

Bide eta errepide publikoetan agertzen diren hildako animalien gorpuak Udalak jasoko ditu. Ez ditu jasoko, ordea, Lurzoruaren Legeari jarraituz, lurzoru hiritarrezin kalifikatutako lekuetakoak.

*33. artikulua. Abandonatutako txakur eta katuen kontrola.*

1. Herrian zehar edo herri inguruko bideetan zehar jaberik edo eramailerik gabe dabilen animalia jaso egingo da, eta Udalak egokitutako txakurtegira eramango da.

2. Animalia gutxienez 30 egunez egon ahal izango da behaketan txakurtegian, eta jabeak jaso egin ahal izango du denbora tarte horretan. Bestalde, jaso ahal izateko, animaliaren jabea dela egiaztatu eta izandako gastuak ordaindu behar izango ditu. Gastuen zenbatekoak urtero ezarri eta argitaratzen ditu Udalak, eta ordainketa horiek ez diote kalterik egingo Ordenantza honetako arauren bat urratzeagatik ezarritako bestelako zigorrei.

3. Albaitariaren txostenak animaliaren egoera zein osasuna txarrak direla eta bere izaera arriskutsua dela adierazten badu, animalia akabatzeko epea aldatu egin ahal izango da, eta presaz akabatu ahal izango da.

4. Hogeita hamar eguneko epea igaro, eta jabeak ez badu animalia jaso edo ez baditu eskubideak ordaindu nahi, ez zaio animalia itzuliko, eta animalia eskatzen duen edonori eman ahal izango zaio, baldin eta animaliaren osasun eta administrazio egoera konpontzeko konpromezua hartzen badu. Horrelakoetan 5 eguneko epea emango zaio eskatzaileari Udalean eta harrera zentroan egiaztatu ahal izateko.

*Artículo 29.º*

Queda prohibido abandonar las deyecciones de los perros en las vías y plazas públicas, parques infantiles, jardines y, en general, en cualquier lugar destinado al ornato y/o tránsito de personas. Para ello, las personas que conduzcan perros deberán llevarlos a las zonas habilitadas al efecto por el Ayuntamiento.

No obstante, si las deyecciones se depositasen en las aceras o zonas de tránsito peatonal, el propietario o persona que conduzca el animal es responsable de la eliminación de las mismas, mediante el depósito dentro de bolsas impermeables y cerradas en las papeleras y otros elementos de contención indicados por los Servicios Municipales, la eliminación a través de las bolsas de recogida de basura domiciliaria o la introducción de los excrementos en los sumideros de la red de alcantarillado.

Ante la situación de que un animal causara suciedad en la vía pública, los ciudadanos están facultados en todo momento para pedir al propietario o tenedor del animal la reparación inmediata del deterioro causado.

*Artículo 30.º*

El Ayuntamiento, conforme a sus disposiciones presupuestarias y cuando lo crea conveniente procurará habilitar en los jardines y parques públicos espacios idóneos señalizados para el paseo o esparcimiento de los perros, estableciendo en la vía pública el equipamiento necesario para las deposiciones de los animales de compañía, señalando e indicando la situación de los mismos.

*Artículo 31.º*

El propietario del animal será responsable de los daños y perjuicios que la permanencia o circulación del mismo en la vía o lugares públicos pueda provocar a terceras personas, bienes privados o públicos.

CAPITULO VII. SERVICIO DE RECOGIDA

*Artículo 32.º Animales muertos.*

El Ayuntamiento recogerá los cadáveres de animales en las vías y caminos públicos, quedando excluidos los cadáveres cuando se encuentren en suelo calificado como no urbanizable conforme a la Ley del Suelo.

*Artículo 33.º Control de perros y gatos abandonados.*

1. Los animales circulen por la población o vías interurbanas sin su dueño o acompañante serán recogidos y trasladados a la perrera habilitada al efecto por la Administración Municipal.

2. En la perrera los animales serán mantenidos en observación durante un período mínimo de treinta días naturales. Durante este tiempo estarán a disposición de su propietario, quien para retirarlo además de acreditar tal condición deberá abonar los gastos que correspondan, los cuales serán establecidos y publicados anualmente por el Ayuntamiento. Todo ello sin perjuicio de la sanción que se le pueda imponer por la posible infracción cometida a lo dispuesto en esta Ordenanza.

3. Cuando las circunstancias sanitarias, estado o peligrosidad del animal así lo aconsejen, y previo informe veterinario, el plazo del sacrificio podrá ser modificado, contemplándose incluso el sacrificio de urgencia.

4. Pasado el plazo de treinta días sin que hayan sido retirados por sus dueños o éstos se nieguen a abonar los derechos pertinentes, quedarán a disposición de cualquiera que los solicite y se comprometa a regular su situación sanitaria y administrativa. En este caso dispondrá de un plazo de 5 días para acreditarlo ante el Ayuntamiento y el centro de recogida.

Animalia-jabe batek animalia txakurtegian lagatzen badu eta aldez aurretik espreski uko egiten badio, animaliaren jabetzari, animalia eskatzen duen edonori eman ahal izango zaio 30 eguneko epean. Horrelakoetan animaliari uko egiten dionak ordaindu behar izango ditu momentu horretan indarrean dauden tasak.

5. Bide publikoan animaliaren bat jaso, eta identifikatu egiten bada, jabeari animalia jasota dagoela jakinarazteko gestioak egingo dituzte Udal Zerbitzuek. Jakinarazpen hori modu frogagarrian egongo da.

6. Beste aukerarik ezean, animalia eutanasia sistema baten bidez akabatuko da, beti ere albaitariaren ardurapean, edo animalien babeserako zentroren bati emango zaizkie, edo animalien eskaera egiten duten izaera zientifikoko zentro edo erakundeei, beti ere albaitari zerbitzuen txostena eta baimena kontuan hartuta, eta garraio-gastuak haien kontura izango dira.

V. TITULUA

XII. ATALA. ZIGORRAK

*34. artikulua.*

Honako Ordenantzaren ondorioetarako, arau-urratzeak honela sailkatuko dira: Arinak, larriak eta oso larriak.

A. Arau-urratze arinak dira honako hauek:

— Errolda identifikaziorik gabeko animaliaren bat izatea, identifikatuta egotea derrigorrezkoa denean.

— Animaliak garraiatzea Lege eta Erregelamenduetan ezarritakoa bete gabe.

— Animalien gorotza lagatzea bide zein plaza publikoetan, haurren parkeetan, lorategietan, leku apaingarrietan eta pertsonak ibiltzeko lekuetan.

— Animaliak edukitzea ondo zaindu eta begiratu ezin diren lekuetan.

— Animaliei tratu iraingarriak ematea.

— Ordenantza honetan zein bestelako lege eta araudietan xedatutako betebehar eta debekuak ez betetzea, egin den arau-urratzearen izaera dela eta, bestelako kalifikazioren bat duen kasuetan izan ezik.

B. Arau-urratze larriak dira honako hauek:

— Garbitasun eta osasun egoeraren aldetik egokiak ez diren lekuetan animaliak edukitzea, janaririk eta beharrezko osasun asistentziarik eman gabe.

— Animaliak antzutzea, mutilatzea eta akabatzea albaitariaren kontrolik gabe edo Legeek zein Araudiek ezarritako baldintza eta eskakizunetan ezarritakoaren kontra.

— Ez bakunatzea eta derrigorrez eman beharreko tratamendurik ez ematea.

— Animaliak saltzea baimenik gabe.

— Ordenantza honen ezarpen eremuan dauden animaliak eduki aldi batean, hazi edo saltzea Legeek zein Araudiek ezarritako baldintza eta eskakizunak bete gabe.

— Animaliak akabatu edo zauritu, alferrik sufriarazi, zauritu edo mutilatuz.

Los animales identificados depositados en la perrera, previa renuncia expresa a su posesión por el propietario del mismo, será puestos de inmediato a disposición de quien los solicite durante un período del 30 días. En este caso el propietario que renuncia al animal deberá abonar las tasas que en cada momento se estipulen.

5. Si el animal recogido en la vía pública está identificado, desde los Servicios Municipales se realizarán las oportunas gestiones para notificar al dueño del animal su captura. Esta notificación se hará de forma fehaciente para que quede constancia de la misma.

6. En última instancia se procederá a su sacrificio eutanásico, bajo el control de un veterinario, o serán donados a Sociedades Protectoras de Animales, centros o instituciones de carácter científico que lo solicitasen, con la autorización e informe de los servicios veterinarios correspondientes, corriendo a su cargo los gastos de transporte.

TITULO V

CAPITULO XII. REGIMEN SANCIONADOR

*Artículo 34.º*

A los efectos de la presente Ordenanza las infracciones se clasificarán en leves, graves y muy graves.

A. Son infracciones leves:

— Poseer animales de compañía sin identificación censal cuando la misma fuere obligatoria.

— El transporte de animales con incumplimiento de los dispuesto en Leyes o Reglamentos.

— Abandonar las deyecciones de los perros en las vías y plazas públicas, parques infantiles, jardines y en general en cualquier lugar destinado al ornato y/o tránsito de personas.

— La tenencia de animales en lugares donde no pueda ejercerse sobre ellos la adecuada atención y vigilancia.

— Someter a los animales a trato vejatorio.

— El incumplimiento de las obligaciones y prohibiciones contenidas en la presente Ordenanza y demás disposiciones legales y reglamentarias, salvo que por su naturaleza merezcan otra calificación.

B. Son infracciones graves:

— El mantenimiento de animales sin la alimentación o asistencia sanitaria necesaria en instalaciones no adecuadas desde el punto de vista higiénico-sanitario.

— La esterilización, práctica de mutilaciones y el sacrificio de animales sin control veterinario o en contra de las condiciones y requisitos establecidos en Leyes o Reglamentos.

— La no vacunación o la no realización de tratamientos obligatorios.

— La venta no autorizada de animales.

— El incumplimiento de los requisitos y condiciones establecidas por Leyes o Reglamentos para el mantenimiento temporal, cría o venta de los animales objeto de esta Ordenanza, por los establecimientos que los desarrollen.

— Maltratar o agredir a los animales causándoles sufrimientos innecesarios, lesiones o mutilaciones.

— Animaliei alferrikako sufrimendua eta kalteak eragiten dizkieten substantziak ematea zuzenean zein janariaren bitartez.

— Kalteak eragin ditzaketen animaliak behar bezala ez zaintzea eta behatzea.

— Animaliak mina duela edo nabarmen sufritzen duela ikusi, eta albaitaritza asistentzia egokirik ez ematea.

— Administrazio baimenik ez duten ikuskizunetan animaliak erabiltzea.

C. Arau-urratze oso larriak dira honako hauek:

— Animaliak txakurtegian egon eta nahiz eta jabea identifikatu, jabeak ez badu animaliaren ardura hartu nahi.

— Animaliak akabatzea era bortitzen batean edo substantzia toxikoak emanda.

— Konpainiako animalia edo etxeko animalia bat abandonatzea.

— Animalienganako krudelkeria, tratu txarrak edo animalien sufrimendua islatzen duten eszenak grabatzea.

— Baimendutako ikuskizunetan parte hartzen duten animaliei anestesia, drogak eta abarrak ematea, horien bidez haien berezko portaera guztiz kontrako bihurtu ahal izateko.

— Pozoindutako janaria lagatzea bide zein espazio publikoetan.

— Animaliak erabiltzea debekatutako ikuskizun publikoetan.

— Zigor-espedientea hasi aurreko bi urteetan zehar hiru arau-urratze larri egin izana, baldin eta zigorra ezarri bazaio erabaki irmo bidez.

*35. artikulua.*

Honako Ordenantzan jasotako arau-urratzeei honako isun hauek ezarriko zaizkie:

— Arau-urratze arinak: 30 eta 300,50 euro bitartekoak.

— Arau-urratze larriak 300,51 eta 1.500,50 euro bitartekoak.

— Arau-urratze oso larriak: 1.500,51 euro eta 15.000 euro bitartekoak.

Isunen zenbatekoa urte osorako izango da, eta urtero eguneratuko da Kontsumo Prezioen Indizearen arabera.

*36. artikulua.*

Isunen zenbatekoa neurtzeko eta aurreko atalean ezarritako zigorren iraupena zehazteko, honako hauek hartuko dira kontuan:

— Arau-urratzeak gizarte mailan eta osasunean izandako eragina eta ekarri duen kaltea.

— Legez kanpoko irabazi asmoak eta horren bitartez izandako irabazien kopurua.

— Arau-urratzea berriro egin izana (Arau-urratzea berriro egin dela esaten da lehendik ere, zigor espedientea hasi aurreko bost urteen barruan Ordenantza honetako arau-urratze bat dela eta, zigorren bat ezarri izan bada administrazio bideko erabaki irmo bidez).

— Zigorra neurtzeko orduan eragina izan dezaketen bestelako inguruabarrak.

Ekintza berak arau-urratze administratibo bi edo gehiago ekartzen baditu, zenbateko handiena daukan isuna ezarriko zaio.

— Suministrar a los animales, directamente o a través de los alimentos, sustancias que puedan causarles sufrimientos o daños innecesarios.

— No mantener la debida diligencia en la custodia y guarda de animales que puedan causar daños.

— No prestar a los animales asistencia veterinaria adecuada ante dolencias o sufrimientos graves y manifiestos.

— Hacer participar a los animales en espectáculos carentes de la correspondiente autorización administrativa.

C. Son infracciones muy graves:

— El negarse a hacerse cargo de los animales recogidos en la perrera y que sean identificados como de su propiedad.

— Causar la muerte a los animales mediante actos de agresión o suministro de sustancias tóxicas.

— El abandono de una animal doméstico o de compañía.

— La filmación de escenas con animales que conlleven crueldad, maltrato o sufrimiento.

— Suministrar a los animales que intervengan en espectáculos permitidos, anestesia, drogas, etc. con el fin de conseguir fines contrarios a su comportamiento natura.

— Depositar alimentos emponzoñados en vías y espacios públicos.

— Hacer participar a los animales en espectáculos prohibidos.

— La comisión de tres infracciones graves, con imposición de sanción por resolución firme, durante los dos años anteriores al inicio del expediente sancionador.

*Artículo 35.º*

Las infracciones a la presente Ordenanza serán sancionadas con multas, de acuerdo con la siguiente escala:

— Infracciones leves: De 30 a 300,50 euros.

— Infracciones graves: De 300,51 a 1.500,50 euros.

— Infracciones muy graves: De 1.500,51 euros a 15.000 euros.

Las cuantías de las sanciones será anual y automáticamente actualizadas con arreglo al IPC, el cual se aplicará sobre la cuantía de la sanción resultante del año anterior.

*Artículo 36.º*

Para la graduación de las cuantías de las multas y la determinación del tiempo de duración de las sanciones previstas en el artículo anterior, se tendrán en cuenta las siguientes circunstancias:

— La trascendencia social o sanitaria y el perjuicio causado.

— El ánimo de lucro ilícito y la cuantía del beneficio obtenido.

— La reiteración (existe reiteración cuando se hubiere impuesto sanción mediante resolución firme en vía administrativa por comisión de una de las infracciones previstas en la presente Ordenanza en el plazo de cinco años anteriores al inicio del expediente sancionador), y,

— Cualquier otra que pueda incidir en el grado de la infracción.

En el supuesto de que unos mismos hechos sean constitutivos de dos o más infracciones administrativas se impondrá la sanción de mayor cuantía.

*37. artikulua.*

Zigortzeko ahalmena izateko, ezinbestekoa izango da zigor espedientea hastea, horretarako legeak edo bestelako araudiek ezarritako bideei jarraituz.

Zigor espedienteak Udalak bideratuko ditu, eta arau-urratzeak oso larriak badira, Foru Aldundiko Organo Aginpidedunari bidaliko dizkio. Zigor espedienteek ezarritako zenbatekoak udaleko diru-kutxan sartuko dira.

Arau-urratze larri eta oso larriei dagozkien zigorrak Udaleko Alkate-Lehendakariak ezarriko ditu.

Arau urratzaileak honako Ordenantza honetan ezarritako edozein zigor jaso izanak, ez du esan nahi arau-urratzeak dakarren erantzukizun zibiletik salbuetsita dagoenik.

Arau-urratzeak delitu edo falta izaera baldin badu, epaitegian eman behar izango da horren berri, eta Administrazio Organoak ez du hor jardungo.

*38. artikulua.*

Zigor espedientea hasten bada, honako kautelazko neurriak hartu ahal izango dira, berriro arau-urratzerik egon ez dadin:

1. Animaliaren batek ondoko zerrendan jasotako egoeraren bat bizi duela susmatzen baldin bada (lege zein bestelako araudiek arau-urratzetzat jotzen dituztenak), animaliaren zaintza kendu egin ahal izango zaio jabeari prebentzio neurri moduan:

— Janaririk ez ematea eta behar bezala alojaturik ez egotea.

— Animalia gaixorik eta/edo zaurituta egon, eta albaitaritzako tratamendurik ez ematea.

— Pertsonentzako kutsagarriak diren gaixotasunen bat edukitzea animaliak.

— Animaliak gaixotasun larri eta sendaezinen bat, mutilazio mingarriren bat zein kendu ezineko bestelako min handiren bat edukitzea.

2. Instalazioak, lokalak edo establezimenduak ixtea prebentzio-neurri modua.

Kautela neurriak ez dira etengo ahalik eta horretarako arrazoiak desagertu arte. Espedientea irmo erabaki eta segituan jaso behar izango dira animaliak, eta lokalak, gehienez ere, 58. artikuluan jasotako epearen erdia egon ahal izango dira prebentzio neurri moduan itxita.

*39. artikulua.*

Isunak borondatez zein premiamenduzko bidea erabiliz ordaindu ahal izango dira, toki araubidean ezarritakoaren arabera.

*40. artikulua.*

Arau-urratze arinak lau hilabeteren buruan preskribituko dira, larriak urtebeteren buruan eta oso larriak bost urteren buruan.

Arau-urratze bati dagokion zenbatekoa 3.000 € baino gutxiagokoa bada, urtebeteren buruan preskribituko dira, eta 3.000 € edo handiagoa bada, bost urteren buruan preskribituko da.

*Azken erabakia.*

Ordenantza hau indarrean sartuko da Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta bihamunetik aurrera.

*Artículo 37.º*

El ejercicio de la potestad sancionadora requerirá la incoación e instrucción del correspondiente expediente, de conformidad con lo establecido en disposiciones legales o reglamentarias.

El Ayuntamiento instruirá los expedientes sancionadores y en el caso de infracciones muy graves los elevará al Organo Foral competente. El importe de las sanciones impuestas por éste se ingresará en las arcas municipales.

La imposición de las sanciones previstas para las infracciones leves y graves corresponderá al Alcalde Presidente de la Corporación.

La imposición de cualquier sanción prevista en la presente Ordenanza no excluye la responsabilidad civil del sancionado.

En los supuestos en que las infracciones pudieran ser constitutivas de delito o falta se pondrán los hechos en conocimiento de la jurisdicción penal, en cuyo caso se abstendrá de actuar el Organo Administrativo.

*Artículo 38.º*

Iniciado expediente sancionador con el fin de evitar la comisión de nuevas infracciones podrán adoptarse motivadamente las siguientes medidas cautelares:

1. La retirada preventiva y custodia de los animales sobre los que exista indicios de haber sufrido alguno de los supuestos proscritos por Leyes o Reglamentos, tales como:

— Animales no alimentados o alojados convenientemente.

— Enfermos y/o heridos sin tratamiento veterinario.

— Con enfermedades contagiosas para las personas.

— Afecciones crónicas incurables graves, mutilaciones dolorosas o cualesquiera que supongan sufrimientos intensos e irreversibles.

2. La clausura preventiva de instalaciones, locales o establecimientos.

Las medidas cautelares se mantendrán mientras persistan las causas que motivaron su adopción. La retirada de animales no podrá prolongarse más allá de la resolución firme del expediente, ni la clausura preventiva podrá exceder de la mitad del plazo previsto en el artículo 58.

*Artículo 39.º*

Las multas se exigirán en período voluntario o con vía de apremio, de conformidad con las normas de régimen local.

*Artículo 40.º*

La infracciones prescribirán a los cuatro meses en el caso de las leves, al año en el caso de las graves y a los dos años en el caso de las muy graves.

Las sanciones prescribirán al año cuando su cuantía sea inferior a los 3.000 euros, y a los cinco años cuando sea igual o superior a dicha cantidad.

*Disposición final.*

La presente Ordenanza entrará en vigor al díasiguiente de la publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.